

Jende ezjakinaren edo maltzuraren hizketa-modua

Adibidez, gaurko BERRIAN, Maite Asensioaren idazkiaren izenburua irakurri dut:
«Elizaren sexu abusuen sei biktima ofizialki aitortu ditu lehen aldiz Nafarroako Gobernuak».

Zer da Eliza BERRIArentzat edota Maiterentzat. Kasua izango balitz, onartuko al zenukete
“BERRIA”ren X sexu-abusuren X biktima aitortu ditu epalileak? Edota FORU
ALDUNDIAREN X sexu-abusu... Edota EUSKALTZAINDIAREN X sexu-abusu... Edota
EAIren, BILDUren, ELAren... X sexu-abusu...

Mesedez! Ni ere Eliza naiz, beste asko ere bai. Guztiok sartu nahi al gaituzue krimen-mundu
horretan? Aipatu titulu horren orde, hain “egiatia eta zuzena” izango litzatekeen beste hau
ipintzen ahal genuke: «Nafar herriaren sexu abusuen sei biktima ofizialki aitortu ditu lehen aldiz
Nafarroako Gobernuak». Egia? Zuzena?

Beste behin, jende ezjakin batek edota jende maltzur batek idazteari eman izanaren astakeria
deritzot BERRIAko aipatu izenburuari.

Lazkao 2023-07-22
DIONISIO AMUNDARAIN